

la perfumería

2017KO UDA

de Mercadona

Gorputza begi-bistan

BERRAZTERTU ZURE
EDERTASUN-OHITURAK
ETA GOZATU UDAZ

EGUZKITAN
[BLAI]

AZAL BELTZARANDU
ETA ONDO ZAINDUAK
DU ARRAKASTA



atlantia[®]
PURO ALOE DE CANARIAS

Ikasi denbora gelditzen

Hydraplus SPF15 Atlantia
aurpegi-krema ALOE VERA
PURUDUNAK babes estra ematen
du azalaren fotozahartzearen
aurrean, orbanak azaltzea
saihesten du, eta azal
fotosentikorrak babesten ditu.





aurkibidea

04 **EGUZKITAN BLAI**
Eguzkia hartzea beti jo izan da ohitura osasungarritzat, baina gehiegi hartzeak arazoak sor ditzake. Lortu eguzkia hartzearen onurak arriskurik hartu gabe; uda honetan, azal beltzarandu eta ondo zainduak du arrakasta.

12 **GORPUTZA BEGI-BISTAN**
Hondartzara ziztu bizian abiatu aurretik, berraztertu eta berrasieratu gorputza zaintzeko ohiturak. Talde garailea dugu azala hidratatzeko eta zelulitisa arrastoan sartua izateko. Zeren zain zaude udaz gozatzeko?

18 **IGO TONUUA**
Edertasun-tresna berriak, tonu azido edo gozoko begiak eta ezpainak, kolore beteko manikura, eta, ilean, neotxirikorda. Egin bat uda honetako lookarekin.

24 **LORTU "GLOSSY" BUSTI-EFEKTUA**
Geranioa, arrosa eta izpilikua. Glossy efektuko eta lore-tonuko ezpain eta azazkalekin, su hartuko du termometroak. Gogoan hartu zer eramaten den denboraldi honetan!

28 **SWEET REBEL**
Leuna eta ausarta, sotila eta urratzailea, gozoa eta errebindikatzailea; halakoxea da edizio mugatuko Sweet Rebel bilduma. Bereziki sortu da sotilak izanik ere besteengandik bereiztea lortzen duten emakumeentzat.

32 **KOLORE BETEKO MANIKURA ETA PEDIKURA**
Egin zure eskuak eta oinak urtarorik beroeneko protagonista, beharrezko zainketei eta New California azazkal-esmalteen bildumaren kolore-etzandari esker.

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Polígono Industrial Fuente del Jarro
C/ Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimaketa: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Leku-arazoak direla eta, baliteke noizbait produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA, SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



Azalean

Modeloak hauek ditu:
Fijo ezpainetakoa 7 zk.
papaia, ura jasaten duen eyeliner-a, ura jasaten duen betile-maskara eta Sol Exotic hautsak.

EGUZKITAN BLAI

Eguzkia hartzea beti jo izan da ohitura osasungarritzat, baina gehiegi hartzeak arazoak sor ditzake. Lortu eguzkia hartzearen onurak arriskurik hartu gabe; uda honetan, azal beltzarandu eta ondo zainduak du arrakasta

EGUZKIPEKO *berriak*

la perfumería

Prest zaude lehenengo printzak hartzeko?

Beltzaran kolore uniforme, argitsua eta polita lortzea da helburua; horretarako, jarraibide hauek izan behar dituzu kontuan:

✓ Azalak ez du zikinkeriarik eta zelula hilik eduki behar; esfoliatu eguzkitan lehenengo aldiz jarri baino pare bat aste lehenago eta eguzkitan azkenengo aldiz jarri eta hilabete geroago; baina ez **gehiegi esfoliatu**, azala fina eta izpiak errazago hartzeko moduan uzten baitu. Hidrata zaitez ondo goizean eta gauean.

✓ **Elikadura egokia** lagungarria da babesteko eta eguzkiagatiko zahartzea bizkortzen duten erradikal askeak blokeatzeko. Hartu gogoan: zure dietak betakarotenoetan, omega 3an eta antioxidatzaileetan aberatsa izan behar du. Sartu azenarioa, zitrikoak, fruitu lehorrak eta hosto berdeko barazkiak zure eguneroko menuan.

Zaindu azala!

Lortu beltzaran kolore iraunkorra zure azaleko zelulei antioxidatzaileak emanez. Has zaitez **eguzki-kapsulak hartzen eguzkitan jarri baino pare bat aste lehenago**. Beltzaran kolore uniforme eta iraunkorra izango duzu, eta eguzki-babesen efektua osatuko duzu.



(1) SPF 30 eguzki-esnea / (2) SPF 20 eguzki-esnea / (3) SPF 50+ eguzki-esnea / (4) SPF 50+ eguzki-espraia / (5) SPF 30 eguzki-espraia / (6) SPF 15 eguzki-espraia / (7) SPF 50+ azal sentikorretarako eguzki-esne berezia / (8) SPF 30 azal sentikorretarako eguzki-esne berezia / (9) SPF 30 beltzaran kolorea bizkortzen duen ukimen lehorreko olio babesgarria / (10) SPF 30 azal sentikorretarako To Go eguzki-esne berezia (banakako sei zorro ditu) / (11) eguzki-kapsulak, betakarotenoarekin eta zinkarekin / (12) SPF 50+ adinaren aurkako aurpegiko eguzki-krema koloreduna / (13) SPF 50+ adinaren aurkako aurpegiko eguzki-fluidoa



PISUA
KONTROLATZEN
LAGUNDUKO
DIZUTEN
TXOKOLATE-
BARRA
GOXOAK



EGUZKI- LEGEAREN *aginduak*

- ✓ Ez hartu eguzkia eguneko ordu zentraletan.
- ✓ Erabili *arropa egokia*, kapela hegal-zabalak, txapelak eta eguzkitako betaurreko homologatuak.
- ✓ Akatsa: oro har, *eguzki-babes gutxi erabiltzen da* aplikazio-kopuruari, kantitateari eta SPF-indizeari dagokienez. Horrek zenbait arazo eragiten ditu, hala nola erredurak, orbanak, erreakzio alergikoak, garai aurreko zahartzapena eta zimurrak.
- ✓ Hautatu *babes altuko edo oso altuko* faktoreak, uraren eta izerdiaren aurkako formulak dituztenak; haiek izango dira zure babes. **50+** eta **30+ Seesee eguzki-babesaren espraiak** gomendatzen dizkizugu.
- ✓ Larruzala zahartzea eta eguzkia hartzea eskutik doaz. *Babestu aurpegia urte osoan*, ez bakarrik bero egiten duen hilabeteetan. Zimurrak, orbanak, lehortasuna eta opakutasuna saihestuko dituzu azalean. Hautatu osagai naturalak dituen eguzki-babes bat, hala nola **SPF 50+ adinaren aurkako aurpegiko eguzki-gel ikusezina**, omega 3, 6 eta 9rekin eta alga gorrien estraktuarekin aberastua.
- ✓ *Eman babesa ordu eta erditik behin edo bi ordutik behin orbanak agertzeko arrisku handiena dagoen tokietan*, hala nola begien inguruan, sudurrean, bekokian, goiko ezpainean eta bularraldean.
- ✓ Gaur egun, hainbat testuratako eguzki-babesak daude, eta batzuk, hala nola espraia dutenak, emateko oso erosoak dira. Aurpegirako, krema-erakoak gomendatzen dira, gehiago xurgatu eta hidratatzen baitute. Kontuz *azal koipetsuekin*, testura fluidoagoak edo oliorik gabekoak behar izaten baitituzte. Kremak, aldiz, egokiagoak dira azal lehorrentzat.



Aftersuna



Beauty aholkua

Erabili aftersuna eguzkia hartzen duzun bakoitzean. Nahiz eta gorriturik edo erreminik ez izan, tonu beltzaranak adierazten du eguzkiak eragina izan duela azalean, eta hori konpondu egin behar da. Azala leunagoa eta elastikoagoa izango duzu, eta beltzaran kolore politari luzaroago irauten lagunduko diozu.

Eguna hondartzan eman ondoren, azala mimatu egin behar da: hidratatu, leheneratu eta kalmatu. Gomendatzen da ohiko kremaren ordez aftersuna ematea, eguzkia hartu ondoren azalari bere hidratazio-maila onena itzultzeko formulatuta baitago. Aktibo kalmagarriak ditu!

Aftersun leheneratzaileak luzaroago eusten dio beltzaran koloreari; bereziki formulatuta dago eguzki-izpien urre-koloreak gehiago iraun dezan. Gel-testura baten sentrazio freskagarria nahiago baduzu, hautatu **aftersun gel aloe veraduna**. Aloe verak kalmatu egiten du azala, eta hura leheneratzen laguntzen du.

EGUZKI-distirak

Eguzkiari ihes egiten badiozu, edo eguzkia gutxi ikusiko baduzu uda honetan bulegoan egon behar duzulako, hori ez dadila oztopo izan kolorea hartzeko.

Gorputz-esne autobronzeadorea gomendatzen dizugu, urre-kolorea ematen baitio azalari. Nahi beste eman dezakezu, gehien gustatzen zaizun kolorea lortu arte. Modu uniformearen ematen da, gorputz-esne bat bezala, kolore homogeneoa lortzeko.

Berehalako beltzaran-efektuko gorputz-gelak argitasuna ematen dio azalari, eta berehalakoan ematen dio beltzaran kolore naturala; jada beltzaran bazaude, azalaren kolorea nabarmentzen du. Masaje leun baten bidez ematen da. Makillajearen antzeko efektua eta iraupena ditu; beraz, ura edo zure ohiko garbigaria erabili behar duzu hura kentzeko.

Erosotasun handiagoa nahi baduzu, **paper-zapi autobronzeadoreak** ere erabil ditzakezu.



Gogoratu

Garbitu ondo eskuk autobronzeadorea erabili ondoren, eta itxaron minutu batzuk jantzi baino lehen, hura erabat xurgatzen den arte

Ebamirentxu joan zen eguzki bila hondartzara...

Babestu haurren azala **50+ haurrentzako eguzki-espraiarekin** eta **50+ haurrentzako eguzki-esnearekin** hondartzako hondarretan jolastan diren bitartean. Biek ere ura jasaten dute. Eta arratsalde bat jolasean eman ondoren? Dutxa on bat, eta, haien azala kalmatzeko, **haurrentzako aftersun lozioa**, hidratatu eta leheneratu egiten baitu gainera.

A ZE AURPEGIA



Hondartzara joaten ez bazara edo oporrik ez baduzu ere, eguzkia hor dago, eta, joan-etorri txikietan, kalean zabiltzala edo gidatzen ari zarela, eragina izan dezake aurpegiko azalean. Saihestu ager daitezkeen orbanak zeure burua egunero eta urte osoan zainduz, aitzakiarik gabe. **SPF 30 lifting-efektuko aurpegi-kremak** eraso egiten dio irmotasun-galerari, eta azalaren elastikotasuna hobetzen du. Emaiozu zure larruazalari itxura gazteagoa, eta saihestu zimurrak.





Sweet
REBEL
deliplus
COLOR



EDIZIO MUGATUA

GORPUTZA *begi-bistan*

*Hondartzara ziztu
bizian abiatu
aurretik, berraztertu
eta berrasieratu
gorputza zaintzeko
ohiturak. Talde
garailea dugu azala
hidratatzeko eta
zelulitisa arrastoan
sartua izateko.
Zeren zain
zaude udaz
gozatzeko?*

Azal % 100 hidratatua



Udan, argi dago protokoloa: esfoliatu, hidratatu eta beltzarandu. Hidratazioan jarriko dugu arreta, bai barnekoan, bai kanpokoan.

- ✓ *Edan 2 litro ur egunean*, batez ere bero handiko garaietan.
- ✓ Egin detox bat; garbitu organismoa bainujantzia jantzi aurretik: zure gorputzak eta osasunak eskertu egingo dizute. *Fruta-eta barazki-zukuak maiz hartzeak* arindu, hidratatu eta leheneratu egiten du gorputza.
- ✓ Hidrata zaitetz olioizko krema berriarekin. Hemen duzu *azala elikatze*ko eta *leuntze*ko *beste modu bat*: ematen den heinean testuraz aldatzen den produktu berri bat.

Olioizko gorputz-krema, ekialdekoa edo **lore zuriak**, kosmetiko berritzaile bat da: lehendabizi, krema-testurarekin agertzen da, baina, azalean ematen duzun heinean, zeta-antzeko olio bilakatzen da, haren lurrin gozoak inguratzen zaituela.

✓ Presaka bazabiltza, *hidrata zaitetz dutxan*. **Dutxarako gorputzeko hidratatzailea** zure azala egunero mimatzeko modu erraz eta praktikoa bat da. Azido hialuronikoarekin eta karite-gurinarekin aberastutako formulak elikatu eta leundu egiten du azala. Nola erabiltzen da? Dutxatu ondoren, azal bustiarekin, eman hidratatzailea gorputz osoan masaje leun batekin, itxaron une batez, eta kendu ur askorekin.



Zetazko ukipenarekin

Olioizko gorputz-kremek hidratatu eta elikatu egiten dute beren aktiboen konbinazioari esker:

- 1 Arroz-olioa: E bitaminak, eskualanoak eta azido linoleikoak elikatu eta leundu egiten dute.
- 2 Glizerina: sakonki hidratatzen du.





DREAM team

Iritsi da ueña; ziur bainujantzia eta udako arropa prest dituzula. Kontuz! Ez utzi alde batera zelulitisaren kontrakoak. Bikini-operazioak ez du etenik; konstantzia funtsezkoa da emaitzak ikusteko. Gogoan izan dieta orekatu batekin eta ariketa fisikoarekin uztartu behar dituzula betiere.

Talde garailea dugu irabazteko:

Zelulitisaren kontrako Deliplus krema murriztaileak zenbait aktibo konbinatzen ditu, hala nola kafeina, galorraz-olioa eta Asiako zentella. Zelulitisa prebenitzen eta laranja-azala hobetzen laguntzen dute.

Gomendatzen da egunero ematea, goranzko masaje leun eta zirkular batekin, eremu koipetsuenetan arreta berezia jarriz. Gimnasioan edo bidaietan, jada ez dago aitzakiarik; eraman beti **zelulitisaren kontrako Extreme Vanity Series krema**. Zorro-formatu praktiko bat du, eta, hari esker, edozein lekutara eraman dezakezu, eta han eman; haren testura urgarriari esker, erraz eta azkar hedatzen eta xurgatzen da. *Cellu-intelligence complex* aktibo-konplexuak zelulei eragiten die, gantza erretzen du, eta berriro metatzea saihesten du.

Mercadonaren lurrindegian, **zelulitisaren kontrako Viseger Pharma emulsio fitoaromatikoa ere badugu**. Eta erakutsi zangoak uda honetan!

Zelulitisaren kontrako MASAJEA

Garrantzitsua da krema egunean bi aldiz ematea, orkatiletatik abdomenerantz masaje bat emanez, mugimendu zirkularrekin, presio arin bat eginez. Abdomenean, eman zirkulu zentrokidetan, eraginkorragoa izan dadin.





Modeloak Fijo ezpainetako 7 zk. papaia du.



Edertasun- aholkuak

gorputza ondo esfoliatzeko

Kendu zelula hilak eta zikinkeriak azaletik. Horretarako, erabili gorputzeko esfoliatzaile bat. Zure azalak uda osorako behar duen osagaia daukagu: **Itsaso Hileko gatzak. Leundu eta freskatu azala Itsaso Hileko gatzak dituen gorputzeko esfoliatzaile mineralarekin.** Gainera, beltzaran kolore polit eta uniformeak lortuko duzu.

✓ Gorputza esfoliatzearen **onura nagusia** da zelula hilak kentzen dituela epidermisetik. Horri esker, azala oxigenatu egiten da, eta ematen zaizkion printzipio aktiboak errazago xurgatzen ditu. Zirkulazioa estimulatu du, eta drainatzea errazten du.

✓ Ez dago edertasun-erritual hori egiteko une jakinik; egin denbora gehien daukazunean. **Esfoliatu ondoren, gomendagarria da ondo hidratatzea**, masaje leun batekin, mikro-zirkulazioa elika eta aktiba dezan.

✓ Duxa da esfoliatzailea emateko **lekurik onena**, hobe baita azala bustita dagoela ematea masaje baten bidez, ukondoetan eta belauetan arreta berezia jarriz. Ondoren, kendu hondarrak ur epelarekin, eta, bukatzeko, eman ur hotzeko zurrusta bat, suspertzeko.

✓ Esfoliatzailea jartzean **masaje** bat ematea da *beauty* une horren gakoetako bat. Kontuan hartu! Goranzko mugimenduak besoetan eta zangoetan; eta zirkulutan abdomenean, bularrean, bizkarrean eta ipurmasailtan.

NEW CALIFORNIA

2017KO
UDA



ESMALTE PARA UÑAS
CALIFORNIA

deliplus
ICOLOR

Aprobetxatu eguraldi ona datorrela eta hartu bizitza osasungarriko 4 ohitura erraz

1 Orain da garaia zure dietan barazkiak eta frutak sartzeko: ortuari- edo fruta-entsaladak, gazpatxoak, barazki-krema hotzak, mazedoniak, zukuak...

2 Hondartza leku ezin hobea da ilunabarra edo egunsentia ikusiz paseo bat emateko. Nahikoa da egunean 30 minutu ibiltzea sasoiko egoteko, eta erlaxatzen ere lagunduko dizu.

3 Ez baduzu denborarik ibiltzera edo kirola egitera joateko, ez hartu igogailurik, zoaz oinez joan behar duzun tokira, jaitsi autobusetik edo metrotik zurea baino pare bat geltoki lehenago...

4 Jarri etxean zure musikarik gustukoena, eta probatu ariketa errazen taula bat; ziur eman ditzakezula 30 minutu asteen bi aldiz gutxienez. Egin txandaka flexioak, kukubilkatzeak eta abdominalak.

Uda honetan ezerk ez zaitzala geldiarazi! Esan agur zango astunei; hartu **zango arinak izateko anpoila** erratzdunak, zirkulazioa hobetzen baitute. **Detox kapsulek** organismoetik toxinak kentzen laguntzen dute, eta horrek azalaren osasunean du isla.



Modeloak Floral bildumako ezpainenetako 01 zk. geranio-laranja du.

Modeloek hauek dituzte: espainetako distira 08 zk., Exotic eguzki-hautsak, Floral bildumako kolore anitzeko koloretea 01 zk.; begietan, 07 zk.; itzala, marroi mate kolorekoa, eyeliner gisa.



Igo tonua

Edertasun-tresna berriak, tonu azido edo gozoko begiak eta ezpainak, kolore beteko manikura eta pedikura, eta, ilean, neotxirikorda.

Egin bat uda honetako lookarekin.

1 Cushionmania

Kosmetikako azken gutizia Koreatik dator. *Cushiona* (kuxina), batez ere, makillajea eta koloretea emateko erabiltzen da, baina testura likidoa duen edozertarako erabil daiteke, hala nola begi-itzal batzuetarako edo ezpainetakoetarako. *Cushiona* makillajea edo koloretean bustitzen den kuxin bat da, eta kuxinari presioa egitean bustitzen den belaki bat. Horri esker, modu askoz zehatzago eta erosoagoan ematen da produktua, eta akabera homoginoa lortzen da. Eraman dezakezu poltsan zure makillajeari ukituak emateko. Berriz kargatzekoak dira, eta ispilu bat dakarte; tresna ezin hobea zure makillaje-errituala errazteko. Zuzendu modu errazean azalaren inperfekzio txikiak SPF 35+ **Cushion Blushion makillaje** urgarri, natural eta arinarekin. Hiru tonu dituzu aukeran. Eta emaezu distira-ukitu osasungarri bat zure masailei **Cushion Blushion kolorete** fresko eta argitsuarekin.

Hiru tonu dituzu aukeran.



2 Makillajea brotxakadaka


Probatu **Deliplus makillaje-brotxa** berria. Produktu berritzaile honek diseinu ergonomikoa du, eta testura fluidoko makillajea, krema-erako makillajea edo makillaje trinkoak ematea errazten du.

Zuntz sintetikoak egina dago, eta plastikozko zorro praktikoa bat dakar, hura nezeserrearantz gordetzeko nezeserra zikindu gabe. Ikaragarri gustatuko zaizu!



3 Eguzki-hautsak

Zure aurpegiari urre-koloreko ukitu argitsua eta beltzarana eman nahi badiozu, erabili **Exotic Eguzki-hauts berriak**. Eder-eder egongo zara. Nahasi bi tonalitateak, zati ilunean edo argian arreta jarriz, zure azal-kolorearen arabera. Kolorete gisa ere erabil ditzakezu.



MAISU-UKITUA Neotxirikorda

Txirikordak boladan daude, zalantzarik gabe, baina itxuraldatu egin dira, eta, denboraldi honetan, glam rock ukituarekin datoz. Buruaren goialdean txirikorda bat edo bi egin, eta erdiko motots batean egiten dute bat.



Distirak zure
ezpainen
edertasuna
areagotzen
laguntzen du,
haien kolorea
indartzen baitu,
eta, aldi berean,
bolumen-
efektu
nabarmena
sortzen du.

Look hori lortzeko, makillatu
ura jasaten duen eyeliner-
arekin, ura jasaten duen
betile-maskarekin eta
Fijo ezpainetako 07 zk.
papaiarekin (1).

4 Ezpain azidoak edo gozoak

Jada ezagutzen duzu Fijo ezpainetako koloredun eta distiraduna, baina, orain, bi kolore berri ditu, udakoagoak. (1) **Fijo ezpainetako 07 zk. papai**a eta (2) **08 zk. flash arrosa**. Matea edo distira; bi akabera ezpainetako berean.



1

2





5 Zure ilearentzako babesa

Oporretan, ileak eraso ugari jasaten ditu: eguzki-izpiak, itsasoko kresala, igerilekuko kloroa...

Babestu **Exotic xanpu eta ile-egokitzaile babesgarriarekin, eta ile leun eta distiratsua izango duzu.**

Gogoratu

Exotic ile-egokitzaile babesgarriak UV iragazkia du eguzkitik babesteko. Gainera, formulak leundu egiten du, distira ematen du, eta ilea harrotzea saihesten du. Eguzkia hartu baino lehen ematen da, bai lehorrean, bai bustian. Eman uretan sartu aurretik eta ondoren.



6 Desodorante ikusezina

Desodorante ikusezina primerakoa da bero egiten duen hilabete hauetarako: ehunetan orban zuriak eta horiak agertzea saihesten du. Haren lurrin gozoa eta inguratzailea sentituko duzu, eta zurekin izango duzu egunerokoa. Kontrol eraginkorra ematen dizu 48 orduz. Senti zaitez seguru!



7 Ilea esfoliatzea

Ahaztu egiten zaigu buruko ile-larrua ere azala dela, eta aurpegia eta gorputza zaintzen ditugun bezalaxe zaindu behar dugula. Ilea esfoliatzeak buruko ile-larrutik zelula hilak eta gehiegizko gantza kentzen laguntzen du. **Ile-baltsamo esfoliatzailea** ezin hobea da ile koipetsu eta/edo zahidunetarako. Freskotasun-sentsazioa ematen du, eta *garbitu aurretik ematen da masaje arin batekin*, zeinak oxigenatu eta mikrozirkulazioa aktibatzen baitu; hala, distiratsu uzten du adatsa.

BAZENEKIEN...?

Noiz *esfoliatu* buruko ile-larrua

Ez da gomendagarria gehiegi esfoliatzea, aurpegiko eta gorputzeko esfoliazioarekin gertatzen den bezala. Astean behin edo bitan esfolia daiteke, buruko ile-larrua nolakoa den.

8 Udako lurrinak

OPOR-USAINA



Udan, ukitu freskoak dituzten lurrinak behar izaten dira, bero-sentsazioa arintzeko. Honako hauek gomendatzen dizkizugu: emakumeentzako **Sport Water 9.60 Pure** zitronelazko body spray-a eta **Vuela**, **Melodía para una mujer** edo **Picnic koloniak**.

9 VOILÀ! Betile eta bekain perfektuak

Maskara gardenak orraztu egiten ditu betileak, eta, aldi berean, dentsitatea eta busti-efektuko distira polit bat ematen die. Kolorerik gabeko gel gardenaren testurak indartu eta errespetatu egiten du zure betileen tonu naturala. Unisexa da, eta bekainak finkatzeko ere erabil daiteke.



Glossy

busti-efektua

Gerania, arrosa eta izpilikua.
Glossy efektuko eta lore-tonuko
ezpain eta azazkalekin... su
hartuko du termometroak.
Gogoan hartu zer eramaten
den denboraldi honetan!

1. looka

Kolore bizek osatzen dute **Floral bilduma** (edizio mugatua). Oinarri gisa, makillaje argitsu bat izpiliku-more koloreko ezpaineekin, eta kolore-puntu bat masailetan, denok inbidia diogun itxura osasungarri hori lortzeko...

Azkenik, delineatu begiak, eta eman ieazkiezu kolorea eta bolumena betileei *waterproof* formulekin.

Floral bildumako ezpaineakoa 03 zk. izpiliku-more kolorekoa, Floral bildumako kolore anitzeko koloretea, Floral bildumako azazkal-esmaltea 680 zk. gel-efektuko arrosa, eta ura jasaten duten eyeliner-a eta betile-maskara.



1. looka

Floral bildumako ezpainenako 03 zk. izpiliku-more kolorekoa / Floral bildumako kolore anitzeko koloretea / Floral bildumako azazkal-esmaltea 680 zk. arrosa, gel-efektukoa / Ura jasaten duen eyeliner-a / Ura jasaten duen betile-maskara.



2. looka

Floral bildumako kolore anitzeko koloretea / Floral bildumako azazkal-esmaltea 752 zk. korala, gel-efektukoa / Floral bildumako ezpainenako 01 zk. geranio-laranja / Ura jasaten duen eyeliner-a / Ura jasaten duen betile-maskara.



GOGORATU

Manikura perfektua, distiratsua eta iraunkorra lortzeko, ez ahaztu *top coat* 662 zk. distira erabiltzea.

2. looka

Ukitu azidoa ezpainetan eta azazkaletan, leunki beltzarandutako aurpegiarekin: makillaje perfektua udako egunetarako. **Floral bildumako ezpainetako 01 zk. geranio-laranja**, **Floral bildumako kolore anitzeko koloretea**, **Floral bildumako azazkal-esmaltea 752 zk. gel-efektuko korala**, ura jasaten duten eyeliner-a eta betile-maskara.

JOERA: *glossy* ezpainak

Floral bildumako ezpainetakoak distira baten eta ezpainetako baten erdibidean daude, eta haietako bakoitzaren onena ematen dute. Haien gel-testurari esker, ezpainak leun, eroso eta hidratatuta geratzen dira, kristal-distiraren (*glossy*) efektu deigarri batekin.

Sweet REBEL

Leuna eta ausarta, sotila eta urratzailea, gozoa eta errebindikatzailea; halakoxea da edizio mugatuko Sweet Rebel bilduma. Bereziki sortu da sotilak izanik ere besteengandik bereiztea lortzen duten emakumeentzat.



BlueJEANS

Lortu begirada sakona, argitsua eta iraunkorra iraupen luzeko Sweet Rebel krema-itzalekin. Hasteko, eman produktu-kantitate txiki bat, eta erantsi gehiago, nahi duzun kolore-intentsitatearen arabera. Markatu ilargi-erdi bat betazal mugikorrean (1) **iraupen luzeko Sweet Rebel krema-itzal 05 zk. jeans urdinarekin. Ondoren, delineatu beheko betazala eta begiaren ertza (2) iraupen luzeko gel-testurako Sweet Rebel arkatza 102 zk. berde turkesarekin.**

Betileetan, (3) **Longitud Xtrem Sweet Rebel maskara 103 zk. malba, lookari erakargarritasun berezia eta argitasun handiagoa emateko.** Tonu urdinak eta pop-ukituak dituzten begi horiekin, ezpainek looka orekatzen dute (4) **barra krematsu 01 zk. arrosa argiarekin;** masailetan, (5) **kolore anitzeko koloretea,** eta, azazkaletan, (6) **Floral bildumako gel-efektuko azazkal-esmalte 752 zk. korala.**

TRUKOA

Beti zikintzen zara betile-maskara ematean? Ez kezkatu; utzi orbana lehortzen bi minutuz, eta, gero, igurtzi kotoi-txotx batekin: ez da arrastorik geratuko, eta zure makillajea ezin hobeto egongo da.



EYELINER *bikoitza*

Udan, makillaje koloretsuagoak eta originalagoak eramaten ditugu. Look hau lortu nahi baduzu, hasteko, delineatu begiak (1) **Iraupen luzeko Sweet Rebel krema-itzal 04 zk. berde argitsuarekin.** Ondoren, erabili eyeliner gisa (2) **iraupen luzeko Sweet Rebel krema-itzal 06. pastel-arrosa.** Eyeliner bikoitza da look honen gako; indarra eta argitasuna ematen dizkio.

Gero, markatu barruko betazala (3) **iraupen luzeko gel-testurako Sweet Rebel arkatza 103 zk. malba ilunarekin, eta, ondoren, eman (4) Longitud Xtrem Sweet Rebel betile-maskara 04 zk. berde metalikoa; makillaje deigarri bezain sotila da emaitza.** (5) **Barra krematsurekin (10 zk.)** makillatutako ezpainen, (6) **kolore anitzeko koloretearekin** makillatutako masailen eta look honetako azazkalen kolore horixkak kontrastea egiten du (7) **New California esmalte 755 zk. horiarekin.**



1



MAISU-
UKITUA
ondo
delineatutako
begi

batzuentzat

Pintzel delineatzailea behar duzu trazua lerroa eta zabalera ezin hobeto definitzeko.





AHOLKUA

Bilduma honetako produktuek iraupen luzerako duten formula dela eta, gomendagarria da produktu bifasiko batekin desmakillatzea.

Begietako arkatzak Sweet Rebel arkatzak *waterproof* dira, eta iraupen luzeko (16 ordu) gel-testurarengatik nabarmentzen dira: kolorez betetako udako look bat biribiltzeko. Zorrozkailua behar du.

Manikura eta pedikura

KOLORE betean

Bihurtu zure eskuak eta oinak urtarorik beroeneko protagonista, beharrezko zainketei eta New California azazkal-esmalteen bildumaren koloreztandari esker.

Eskuetan, **New California azazkal-esmalteak 755 zk. horia, 773 zk. urdina, 757 zk. berdea, 707 zk. mugurdia eta 772 zk. greenery (urteko kolorea).** Oinetan, **New California azazkal-esmalte 760 zk. gorri bizia.** (1) Azetonarik gabeko esmalte-kentzekoa / (2) Esmalte-kentzeko azetonaduna / (3) **Herbologist Flor de Japón** esku-krema / (4) **Azazkaletako lima** / (5) **Gogorgune-kentzekoa** / (6) **Gogorguneen kontrako esfoliatzailea, oinetarako** / (7) **Erroitzak leheneratzeko krema, oinetarako.**





Eskuetan eta oinetan, **New California azazkal-esmalte 757 zk. berdea**. (1) **Betile-maskara gardena** / (2) **Hautsetarako brotxa bilkorra**, arrosa eta berdea / (3) **Gogortzailea** / (4) **Hydraplus FPS15 Atlantia aurpegi-krema** / (5) **Azazkal-eskuila** / (6) **New California azazkal-esmalte 757 zk. berdea** / (7) **Kutikula-kentzekoa**.

Maisu- ukitua

Azazkal inbidigarriak lortzeko, gomendagarria da **Deliplus distira-gelaren** geruza bat ematea esmaltea babesteko; hala, luzaroago iraungo dute distiratsu eta itxura ezin hobean.



- (1) Eskuetan eta oinetan, **New California azazkal-esmalte 703 zk. korala** / (2) **Oin eta zangoetako gel freskagarri indargarria** / (3) **Urratuen kontrako barra, oinetarako** / (4) **Oinarri lisatzailea** / (5) **Gogortzailea** / (6) **Eskuetako berehalako esmalte-kentzekoa, txori-arrosaduna eta E bitaminaduna** / (7) **Oinarri bitaminaduna, bost 1ean** / (8) **Azazkaletako lima** / (9) **Distira-gela** / (10) **Tanta lehortzaileak.**

POLVOS DE SOL
exotic
deliplus
COLOR



EDIZIO MUGATUA

deliplus DESODORANTEAK



48h-ko
EKINTZA
Alkohola
%0

ROLL-ONEan ere bai